

ARAUDIA

- XXIII. SAKANAKO IBILALDI HANDIA Iratxo Elkarteak antolatzen du eta ez du norgehiagoka izaerarik.
- XXIII. SAKANAKO IBILALDI HANDIA apirilaren 28ean izanen da Iratxo Elkartetik goizeko 6etan abiatu eta Foruen Plazan amaituz.

- Bi ibilbide izanen dira aukeran: **Sakanako Ibilaldi Luzea (Hiru Baselizak)**, 55,6 Kmkoa eta **Sakanako Ibilaldi Motza (Irañetako bidea)**, 40,2 kmkoa. Bi aukerak XI. EUSKAL HERRIKO IRAUPEN LUZEKO IBILALDIEN ZIRKUITOAn eta V . NAFARROAKO IRAUPEN LUZEKO MENDI IBILALDIEN ZIRKUITOAn sartuta daude.

- Bi ibilbideak behar bezala markatuta egonen dira.
- Bi ibilbideetan horniketarako guneak izango dira.

- Partaide bakoitzari ibilbidean jarritako kontroletan bete beharreko txartel pertsonalatu bat emanen zaio. **Kontrolak irekita egonen dira triptikoan ageri diren gutxienezko eta gehienezko ordutegiaren artean.**

- **Proba hasitakoan ibilaldia uztea erabakitzen duten parte-hartzaileek iritsi diren azken kontrolean edo 639754226-648628681 telefonora deituta eman beharko dute hartutako erabakiaren berri.**

- Edozein ibilbide bukatzen duten guztiei diploma eta oparitxo bana emanen zaie.
- Mendiko materiala zozketatuko da. (Begiratu zerrendak bukaerako kontrolean).
- Bukatzean , Surya Masaje Eskolak igurtziak emango ditu.
- Atakondoa Eskolan dutxa hartu ahal izanen da.

- **Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen parte-hartzaileei proban gerta lekizkiekeen istripuak. Partaideek, bere aldetik, uko egiten diote antolakuntzari erreklamaziorik edo kalte-ordainketarik eskatzeari.**

- Federatuta egotea gomendatzen da.
- Gurutze Gorriak ibilbidea zainduko du.

- Antolakuntzak, arrazoi klimatikoak direla-eta hala iritzita, proba bertan behera utzi edo ibilbidea aldatu ahal izango du.

- Izena eman duen pertsona oro jakitun da inskripzio formularioan ageri diren datuak datu pertsonalen fitxategien barne geratuko direla eta antolakuntzak soilik erabili ahal izango dituela

ibilaldian parte-hartzailearen kudeaketa egoki egin ahal izateko eta Iratxok bere web orrian parte-hartzaileen zerrenda argitaratu ahal izateko. **Informazio hau ematean, parte-hartzaileak aipatutako datu-tratamendua egiteko onspena ematen du. Hala nahi izanez gero, ordea, zuzenketa-, deuseztapen- eta aurkakotasun-eskubideak erabili ahal izango ditu IRATXO ELKARTEA, Trinitate Kalea Z/G. 31860 Irurtzun (Nafarroa), helbidera idatzia igorritz.**

- **Izena emateak araudi hau onartzea dakar.**